

Zuhaitzak, Gabonetako kaltetuenak

Gabonetako zuhaitza etxeko, kaleko eta erakusleihoko oinarritzko apaingarri bihurtzen da jaiegun hauetan. Asko dira etxeko txikien aitzakiarekin zuhaitza jartzeko ardura eta lana hartzen dutenak.

Gabonetako zuhaitzak naturalak edo artifizialak izan daitezke. Azken horiek apaingarriak saltzen dituzten dendetan saltzen dituzte. Hainbat material erabiltzen dituzte zuhaitzok egiteko: egurrezkoak badira, eta baita plastikozkoak ere.

Zuhaitz naturalen kasuan, zentro handi askotako sarreretan egoten dira salgai, baita loradendetan ere. Usurbilgo Urtienea loradendan, esaterako, urtero egun hauetan 600 bat izei saldu ohi dituzte.

Urtetik urtera salmentetan ez dela aldaketarik izaten dio Aitziber Matxainek, Urtienea loradendako saltzaileak. «Zuhaitzak jartzea ekologikoa ez zela eta naturari kalte egiten ziola zabaltzen hasi zen garaian behar akada bat izan bazen ere, berriro gorakada izan zuen salmentak, eta urtero kopurua mantendu egiten da», gaineratu du.

Urtienea loradendak Goierri eskualdeko izei haztegi batetik ekartzen ditu zuhaitzak, ondoren bezeroei saltzeko.

Usurbilgo loradenda horretan, tamaina askotako zuhaitzak dituzte aukeran, 75 zentimetrotik 3 edo 4 metro artekoak. Jendeak gehien erosten dituenak metro eta metro eta erdi ingurukoak direla zehaztu digu Matxainek, hots, etxean sartzeko modukoak. Kaleak apaintzeko udalek enkargatzen dituzten zuhaitzak, berriz, handiagoak izaten dira.

Prezio aldetik ere alde nabaria dago. Txikiak 950 pezeta (38 libera) balio du, eta handiak, aldiz, 9.000 pezeta (360 libera) inguru.

Etxean Gabonetan zuhaitza jartzea ohitura bihurtu da

- Benetakoa jartzeko erabakia hartuz gero, bizirik irautea oso zaila dela izan behar da kontuan



GARI GARAIALDE

Urtienea loradendan tamaina eta prezio ezberdinetako izeiak daude. Urtero 600 bat zuhaitz saltzen dituzte.

Eguberri ekologikoagoen alde

Eguberriak hurbiltzearekin batera, ohikoak izaten dira talde ekologisten aldarrikapenak eta kanpainak. Alberto Friasek, Eguzki talde ekologistako kideak, Gabonetan ingurumenari egiten zaizkion kalteak gogorazi dizkigu, berriro ere.

Friasek gogor kritikatu du zuhaitza apaingarri gisa erabiltzeko joera; haren ustez, Gabonetan zuhaitza jartzea «bizirik dagoen zuhaitza hartu eta 15 edo 20 egunez koloreetako argitxoekin torturatzeko ohitura» baino ez da. «Tenperatura hotzetatik etxeko berotasunera sartzean, urtaroa aldatu egiten diogu, hots, negutik udara igaroarazi, eta hori ez batere ona

zuhaitzarentzat», gaineratu du Alberto Friasek.

Horrela, Gabonak igaro ostean zuhaitza landatu eta suspertzeko ahaleginak egiten diren arren, zuhaitzak bizirik irautea ia ezinezkoa dela aitortu digu. «Zuhaitzak berreskuratzeko kanpainak egin ohi dira, baina, kanpaina horietako arduradunek aitortu digutenez, zuhaitzen hiltze tasa %80 edo %90ekoa da». Emaizta esanguratsu horiek ikusirik, Alberto Friasek oso garbi ikusten du: «Oso gaitziki iruditzen zaigu jendearen kontzientzia lasaitzeko zuhaitzak berreskuratu daitezkeela esaten aritea».

Gabonetan kalte handia pai-

ratzen duen beste espezie bat goroldioa izan ohi da. Basoetan bere funtzioa betetzen du, eta, ez hartzeko deia egiten duen arren, jasotzen bada dena leku beretik ez hartzera aholkatzen du Eguzkiko kideak, zuhaitz enborrak eta gune harritsuak biluzik gera ez daitezken.

Zuhaitzei egiten zaien kaltea ekidin nahian, eta kontuan izanik plastikoa ingurumenarentzat ona ez bada ere zuhaitzak moztea kaltegarriagoa dela, zuhaitz sintetikoak erabiltzea gomendatzen du. Apaintzeko, berriz, basoan aurki daitezkeen hosto eta adaxka lehorrez egingako apaingarriak erabil daitezke, edo mihura.

Zuhaitzaz gain, apaingarri gisa Gabonetan jendeak gehien eskatzen duena Gabonetako lore gorrixka dela dio. Horrez gain, gorosti txikiak eta pinu txikiak ere ugari saltzen dira. Bestela apaintzeko ezer gutxi saltzen dela aitortu digu Urtienea-ko saltzaileak.

Erabili ondoren zer egin

Zuhaitza jarri edo ez bakoitzaren erabakia da, baina benetakoa izei bat jarri nahiko bagenu inolaz ere egin behar ez dena basora joan eta moztea dela dio Matxainek: «Ezberdina da izei landaketa batetik hartzea, bertan urtero izei kopuru jakin bat landatzen eta saltzen baitute. Naturari benetakoa kalte egiten diogu basora joan eta zuhaitza moztean».

Gabonak pasa ostean, berriro izeia landatzea ez dela «egokia» dio saltzaileak: «Hilabete etxeko berotasunean pasatuta, zuhaitza lehortu eta zain gutxirekin geratzen da; hala, oso zaila da bizirik irautea; horregatik, nahi bada lurrera bueltatu daiteke, baina ez landatu», aitortu digu lorazainak.


Izeia nola zaindu

Dena den, helburua zuhaitzak bizirik irautea bada, erosi orduko lorontzi batean landatu behar dela dio Matxainek. Horrez gain, garrantzitsua da zuhaitza leku fresko batean egotea, zuhaitzarentzat kaltegarriena etxeko berotasuna delako. Berogailuaren beroak zuhaitza lehortu eta hil egiten du.

Zuhaitzari jartzen zaizkion apaingarrietako argiek ere ez diote onik egiten izeiari. Beraz, gure asmoa zuhaitza mantentzea bada, komeni da bestelako apaingarriak erabiltzea.


Zainak eta hostoak maiz ureztatzea ere garrantzitsua da oso. Hasieran zainak hartu arte sustraiak ongi estaltzen dizkion lorontzi batean landatu arren, denborarekin lorontzi handiago batera edo lurrera aldatu behar da.

ARRAULTZA PRODUKZIOA ETA SALMENTA




URBIZU

Gosategi, 33 • ZEGAMA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 80 19 99



Arrandegi kalea, 4 eta 12 - DONOSTIA



★ Euskal herriko areto guztietako filmak

★ Estreinaldiak

★ Kritikak

www.Egunkaria.com/zinema